



TXOSTENA
MEMORIA 1998

MATIA
FUNDAZIOA



AURKIBIDEA

SUMARIO



I AURKEZPENA PRESENTACIÓN

Composición del Patronato *Patronatoaren Osaketa*

Señas de Identidad *Identitate-Ezaugarriak*

Identificación de Servicios *Zerbitzuen identifikazioa*

Organigrama funcional *Funtzionamendurako organigrama*

Staff directivo *Zuzendaritza Staffa*

SARRERA 2 INTRODUCCIÓN

3 1998-2000 EPE ERTAINEKO PLANA ETA PLAN HORREN 1998KO GARAPENA PLAN A MEDIO PLAZO 1998-2000 Y SU DESARROLLO EN 1998

3.1 Política General y Objetivos *3.1 Politika Orokorra eta Helburuak*

3.2 Plan de Calidad *3.2 Kalitate Plana*

3.3 Plan de Infraestructuras *3.3 Azpiegituretako Plana*

3.4 Plan de Comunicación *3.4 Irudia eta Komunikazioa*

3.5 Otros Planes *3.5 Beste Plan Batzuk*

JARDUEREN BALANTZEA 4 BALANCE DE ACTIVIDADES

4.1 Servicios Hospitalarios *4.1 Ospitale Zerbitzuak*

4.2 Servicio de Rehabilitación Ambulatoria *4.2 Anbulatorioko Errehabilitazio Zerbitzuak*

4.3 Centros Gerontológicos *4.3 Zerbitzu Sozialak- Gerontologi Zentroak*

5 BALANTZE EKONOMIKOA BALANCE ECONÓMICO

5.1 Ingresos *5.1 Diru-Sarrerak*

5.2 Gastos *5.2 Gastuak*

5.3 Cuenta de Pérdidas y Ganancias *5.3 Galera eta Irabazien Kontua*

5.4 Inversiones *5.4 Inbertsioak*

5.5 Balance de Situación y Variaciones Patrimoniales *5.5 Egoera Balantzea eta Ondare Aldaketak*

5.6 Auditoría y Aprobación de Cuentas *5.6 Ikuskapena eta Kontuen Onarpena*

A U R K E Z P E N A

P R E S E N T A C I Ó N



La “Fundación José Matía Calvo”, que remonta sus orígenes a 1888, ha recorrido a través de estos 111 años de vida un largo y laborioso camino.

El 12 de enero de 1994 y tras un duro proceso de reconversión derivado de la necesaria adaptación a las políticas sociales y sanitarias de la Administración, aprobamos en MATIA Fundazioa la Declaración Programática, documento que recogía sucintamente la formulación de los principios básicos de la Fundación y las políticas generales que debían regir su futuro.

Como complemento a esta Declaración Programática y consecuentemente con ella, se elaboró un Plan Estratégico denominado “Análisis y Evaluación. Propuesta de Cambio” que recogía las líneas básicas de actuación y los objetivos generales a alcanzar, de forma que sus contenidos llevados a la práctica diesen respuesta a los enunciados de la Declaración Programática.

A lo largo de cuatro años (1994-1997) la Fundación recorrió el camino dentro de las directrices básicas marcadas en el plan, consiguiendo acceder al final del periodo a una situación considerablemente mejorada, como consecuencia de una alta ocupación en todas sus actividades, consiguiéndose resultados positivos en todos los ejercicios y situándose en una posición de estabilidad.

Alcanzada la anhelada estabilidad, la Fundación se planteó encarar el futuro con una sana ambición de perfeccionar su capacidad de gestión y alcanzar unas altas cotas de calidad en su amplia gama de servicios, siempre dentro de unas altas dosis de pragmatismo, de manera que nunca pudiésemos poner en riesgo los resultados alcanzados.

De esta manera, y con la incorporación de una Dirección General, se elaboró un Plan a Medio Plazo 1998-2000, en el que se pretendía reflejar el cambio para la nueva etapa, en la que el ejercicio de 1998 constituye su punto de partida.

La configuración al día de hoy de MATIA Fundazioa para abordar este futuro se presenta a continuación a través de los cuatro elementos básicos que mejor pueden identificarla en su conjunto. Estos elementos son: sus Señas de Identidad, la composición de su Patronato, la Identificación de sus Servicios y Centros de Trabajo, y su Esquema Organizativo.

Finalmente y como hecho de especial significado, se hace preciso señalar el fallecimiento en el mes de Agosto de D. Manuel Mari Hernández Zudaire, Vicepresidente del Patronato, hombre de calidad extraordinaria, que dedicó miles de horas de su vida, de forma altruista, al servicio de la Fundación.

A handwritten signature in dark ink, appearing to be 'M. Segura Zurbano', written in a cursive style.

MIGUEL ÁNGEL SEGURA ZURBANO
Presidente

Orain dela 111 urte, 1888 urtean “Fundación José Matía Calvo” izenaz sortutakoak ibilbide luze eta saiaturik dauka egina denbora horretan guztian.

Administrazioaren gizarte- eta osasun-politiketara egokitu beharraren ondoriozko errekonbertsio-prozesu gogor baten ondoren, 1994ko urtarrilaren 12an, MATIA Fundazioan Adierazpen Programatikoa onartu genuen, Fundazioaren oinarriko printzipioen eta bere etorkizuna itxuratuko zuten politika nagusien formulazioa laburki jasotzen zuen agiria.

Adierazpen programatiko horren osagarri eta ondorio, “Análisis eta Ebaluazioa. Aldaketarako Proposamena” izeneko Plan Estrategiko bat egin zen, jardute-ildo nagusiak eta eskuratu beharreko helburu orokorrak jasotzen zituen. Helburu orokor horietako edukiak, praktikara eramanda, Adierazpen Programatikoko enuntziatuei erantzuna emango zieten.

Lau urtean zehar (1994-1997) planean ezarritako jarraipide oinarrikoen barruan egin zuen bere ibilbidea Fundazioak, eta aldi horren buruan egoera nabarmenki hobetua izatera iristea lortu zen; bere jarduerak guztietan langintza handia izatearen ondorioz, emaitza positiboak izan ziren urte horietan guztietan eta egonkortasuna lortu zen.

Behin hain desiratutako egonkortasuna eskuratuta, Fundazioak etorkizunari aurre egiteari ekin zion eta bere kudeaketarako gaitasuna hobetzeko eta bere zerbitzu ugarietan kalitate-maila altuak lortzeko anbizioz ekin ere, betiere pragmatismo-dosi handiz, lortutako emaitzak inoiz arriskuan jarri gabe.

Horrela, Zuzendaritza Orokor bat sortuta, 1998-2000rako Epe Ertaineko Plan bat egin zen, aldi berrirako aldaketa jaso nahi zuena eta 1998 urtea izango zuena abiapuntua.

Etorkizun horri aurre egiteko MATIA Fundazioak gaur egun duen egituraketa bere osotasunean ongien identifika dezaketen lau oinarriko elementuen bitartez aurkezten da ondoren. Honakoak dira elementuok: bere identitate-ezaugarriak, bere Patronatuaren osaketa, bere zerbitzu eta lantokien identifikazioa, eta bere antolaketa-eskema.

Azkenik, eta esanahi bereziko gertakari gisa, beharrezko da aipatzea abuztuan hil zela Manuel Mari Hernández Zudaira jauna, Patronatuko lehendakariorde zena, gizon paregabea, Fundazioaren zerbitzuan era altruistan orduak eta orduak eman zituen.

PATRONATOAREN OSAKETA

COMPOSICIÓN DE PATRONATO

Presidente ● *Lehendakaria*
D. MIGUEL ÁNGEL SEGURA ZURBANO

Secretario ● *Idazkaria*
D. ALBERTO GALLASTEGUI PINZOLAS

Vocal delegado ● *Batzarkide ordezkaria*
D. JESÚS FERRO LAREQUI

Vocal ● *Batzarkidea*
D. PELI EGAÑA OJANGUREN

Vicesecretario ● *Idazkariordea*
D. RAMÓN CALPARSORO BANDRÉS

Vocales ● *Batzarkideak*
D.ª M.ª TERESA ARANZABAL JAUREGUALZO
D. JOSÉ M.ª AYCART ORBEGOZO
D. JOSÉ LUIS CIRIQUIAIN
D. JOSÉ LUIS DE LA CUESTA ARZAMENDI
D. JUAN JOSÉ ECHEVERRIA MONTEBERRIA
D. JAVIER ELZO IMAZ
D. ALBERTO GARCÍA INOSA
D.ª M.ª LUISA GUIBERT UCIN
D.ª MERCEDES LUZURIAGA SANTO DOMINGO
D. JOSÉ MIGUEL OLANO ALZUA
D. JOAQUÍN OQUIÑENA PERELLO
D. JOSÉ LUIS ORBEGOZO BALZOLA

M I S I Ó N

QUIÉNES SOMOS, QUÉ
HACEMOS, PARA QUIÉN
TRABAJAMOS

1 MATIA FUNDAZIOA, es una **institución privada de carácter social sin interés lucrativo**, integrada por un Patronato y una organización de trabajadores, que desarrolla su labor asistencial desde 1888, y que basa la financiación de sus actividades en los ingresos generados por la prestación de sus servicios.

2 Su misión básica es la de **atender, adaptándose a los cambios sociales, las necesidades no cubiertas en el ámbito de las personas mayores, generando los servicios que puedan dar una mejor respuesta a las mismas, todo ello desde una visión humanista e integral de la persona mayor.**

3 Su actividad principal, en el momento presente, es la **prestación de servicios asistenciales de tipo socio-sanitario a las personas mayores** y especialmente a las que más lo precisan tanto física, psíquica como socialmente, de forma personalizada e integral, para contribuir de esa manera a aumentar su calidad de vida y la de las personas de su entorno más próximo.

De la cualificación de sus cuadros técnicos y de la capacidad de su organización se derivan **actividades complementarias**, como la rehabilitación ambulatoria o la asistencia a minusválidos físicos gravemente afectados, entre otras.

4 Como adaptación de la misión al tiempo presente, Matia Fundazioa asume abordar aquellas iniciativas que tiendan a *promover*, con carácter general, **el mejor desarrollo de las capacidades individuales de las personas mayores**, evitando su marginación y propiciando su participación social, y conseguir consecuentemente una revalorización de su papel en la sociedad.

E G I T E K O A

1 *MATIA FUNDAZIOA aberasteko asmorik gabeko gizarte-izaerako erakunde pribatua da, Patronatu bat eta langileen antolakuntza batez osatua, bere laguntza-lana 1888tik gauzatzen ari dena eta bere zerbitzu-emakidak eragindako diru-sarreretan oinarritzen duena bere jardunen finantzaketa.*

2 *Bere oinarrizko egitekoa, gizarte-aldaketetara egokitzearekin batera, adineko pertsonen premia estaligabeei erantzutea da, haiei erantzun egokiena eman diezaietkeen zerbitzuak sortuz horretarako, betiere adineko edo nagusiarekiko ikuspegi humanista eta osoarekin.*

3 *Bere jardun nagusia, gaur egun, gure nagusiei gizarte- eta osasun-izaerako laguntza-zerbitzuak ematean datza, bereziki bai premia fisiko, psikiko edo sozial handienak dituztenei era banakakoan eta integrean zerbitzua ematean, hartara adineko horien eta beren inguru hurbileko pertsonen bizi-kalitatea handitzen laguntzeko.*

Fundazioko koadro teknikoen gaitasuna eta bere antolaketaren egokitasunaren ondorioz, jarduera osagarriak sortzen dira, hala nola, besteak beste, anbulatorioetako errehabilitazioa eta elbarritasun fisiko handikoentzako laguntza.

4 *Gure egitekoa gaur egungo garaietara egokitzeko, Matia Fundazioak bere gain hartzen du orokorrean gure nagusien gaitasunen garapena sustatzera jotzen duten ekimenei aurre egitea, horrela beren bazterketa saihestu eta haiek gizartean parte hartzea bultzatzeko eta, ondorioz, haiek gizartean duten paperari balioa emateko.*

ZEINTZUK GAREN,
ZER EGITEN DUGUN,
NORENTZAT
DIHARDUGUN

OBJETIVOS Y FORMA DE
CONSEGUIRLOS

- 1 Aspiramos a que nuestros clientes, usuarios, familiares y en general los ciudadanos de Gipuzkoa nos valoren como una entidad propia que satisface plenamente sus expectativas, y a que nuestra labor profesional alcance una notable proyección exterior como referencia cualificada en el sector.
- 2 Deseamos alcanzar la máxima satisfacción laboral y profesional para todos los trabajadores y colaboradores de Matia Fundazioa y sentir nuestro trabajo como una labor realmente útil para la sociedad.
- 3 La consecución de estos objetivos se concretará a través de una **sustancial mejora de la evaluación empresarial**, a realizar en los años sucesivos, según el modelo EFQM u otro de aceptación internacional.
- 4 El camino a seguir para conseguir esos objetivos será el de desarrollar una organización de equipos profesionales competentes que, con estilo participativo y carácter interdisciplinar y con un modelo de intervención psicosocial y sociosanitario, garantice un nivel de atención de máxima calidad. De esta manera conseguiremos un elevado nivel de satisfacción y bienestar de los usuarios y familiares, así como una buena relación con las instituciones implicadas en el sector.

- 1 *Gure bezero, erabiltzaile, haien senide, eta Gipuzkoako biztanleek orokorrean beren igurikapenak erabat asetzen dituen erakunde propiotzat jo gaitzabela lortzera eta gure jardun profesionalak kanpoan ere, arloko erreferentzia nabarmen bilakatu daitezela lortu nahi dugu.*
- 2 *Matia Fundazioko langile eta laguntzaile guztiek ahalik eta asetzemailerik handiena izan dezaten lortu nahi dugu, eta egiten duten lana gizartearentzako zerbitzu benetan emankorra dela sentitzea.*
- 3 *Helburu horien lorpena ondorengo urteetan, EFQM eredua edo nazioarteko onarpena duen beste eredu bat erabiliz, egin beharreko enpresa-ebaluazioaren hobekuntza nabarmenaren bidez gauzatuko da.*
- 4 *Helburu horiek guztiak lortzeko jarraitu beharreko bidea profesional gaituak osaturiko ekipoak garatzea izango da; partehartzaile eta diziplinarteko izaerakoak, eta interbentzio psicosozial eta gizarte- eta osasun-zerbitzuez osaturiko eredua, kalitate goreneneko arreta bermatzeko asmoz. Era honetan, batetik poztasun eta ongizate maila altua lortuko dugu erabiltzaile eta senitartekoen artean, eta bestetik harreman onak sektorean inplikaturik dauden erakundeekin.*

NUESTROS VALORES

GURE BALOREAK

PRINCIPIOS EN LOS QUE SE
APOYA NUESTRA MISIÓN

1 **EI CONOCIMIENTO** o “Saber-hacer” y su difusión.

Este conocimiento se basa en:

- La experiencia de más de 100 años de servicio.
- La profesionalidad del equipo humano y su permanente reciclaje.
- La labor en I+D como pioneros de los servicios que prestamos

2 **La HUMANIDAD** o empatía con las personas mayores y sus familias.

3 **La CALIDAD** percibida por la sociedad guipuzcoana es el elemento impulsor de nuestra mejora continua en la gestión y la atención.

4 **La SOLIDARIDAD**, es la base desde la que entendemos se debe definir y desarrollar la política social, en nuestro caso la del ámbito de las personas mayores.

5 **La VEJEZ** es un valor en sí misma, debiendo impulsarse su papel en la sociedad.

6 **EI EQUIPO HUMANO** de Matia Fundazioa es elemento clave para el desarrollo de la misión, siendo prioritarios su mejor cualificación y estímulo laboral.

1 **EZAGUPENA**, edo “Egiten jakitea” eta bere zabalpena.

Ezagupen hau ondorengo puntuetan oinarritzen da:

- *Zerbitzua eskainiz lortu dugun 100 urte baino gehiagoko esperientzia.*
- *Lantaldearen profesionaltasuna eta erreziklaje iraunkorra.*
- *I+Gn egiten dugun lana aitzindari gisa eskaintzen ditugun zerbitzuetan.*

2 **Gure nagusiekin eta beren senideekin GIZATASUNA edo enpatia**

3 **Gizarte gipuzkoarrak aitortzen digun KALITATEA da motorra etengabe hobetzeko kudeaketa eta arreta.**

4 **Gure ustez ELKARTASUNEAN oinarritu behar da politika soziala, eta guri dagokigunez, gure nagusia hain zuzen ere.**

5 **ZAHARTZAROA bera da balore bat, gizartean bete behar duen papera bultzatu behar da.**

6 **Matia Fundazioko LANTALDEA da giltzarria gure eginkizuna betetzeko, beraz kualifikaziorik onena eta lan-estimuluak lehentasunezkoak dira.**


GURE EGITEKOA
OINARRITZEN DEN
PRINTZPIOAK

ZERBITZUEN IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN DE SERVICIOS

SERVICIOS Y CENTROS DE TRABAJO	LANTOKIAK ETA ZERBITZUAK
ACTIVIDAD SOCIOSANITARIA	GIZARTE ETA OSASUN JARDUERAK

CENTRO - ZENTRUA	ÁREA SOCIAL - GIZARTE ARLOA	ÁREA SANITARIA - OSASUN ARLOA
RICARDO BERMINGHAM	Unidad Gerontológica - <i>Gerontologi Unitatea</i> Unidad de Minusválidos físicos gravemente afectados - <i>Larriki eragindako Elbarrien Unitatea</i> Centro de Día - <i>Eguneko Zentroa</i>	Medicina Geriátrica y Convalecencia <i>Susperraldia eta Egonaldi Luzea</i> Cuidados Paliativos - <i>Zainketa Paliatiboak</i> Rehabilitación Ambulatoria <i>Anbulatorioko Errehabilitazioa</i>
JULIÁN REZOLA	Centro Gerontológico - <i>Gerontologi Zentroa</i>	
SAN JOSÉ	Centro Gerontológico - <i>Gerontologi Zentroa</i>	
ALAI-ETXE	Centro Gerontológico - <i>Gerontologi Zentroa</i>	
TXARA 1	Unidad Gerontológica - <i>Gerontologi Unitatea</i> Centro de Día - <i>Eguneko Zentroa</i>	Rehabilitación Ambulatoria <i>Anbulatorioko Errehabilitazioa</i>
KAI-ALDE		Rehabilitación Ambulatoria <i>Anbulatorioko Errehabilitazioa</i>
FRAISORO (ZIZURKIL)	Centro Gerontológico - <i>Gerontologi Zentroa</i> Centro de Día - <i>Eguneko Zentroa</i>	
LASARTE		Rehabilitación Ambulatoria <i>Anbulatorioko Errehabilitazioa</i>
HERNANI		Rehabilitación Ambulatoria <i>Anbulatorioko Errehabilitazioa</i>
ZARAUTZ		Rehabilitación Ambulatoria <i>Anbulatorioko Errehabilitazioa</i>


SAN SEBASTIÁN-DONOSTIA



1999an ZUZENDARITZA STAFFEA STAFF DIRECTIVO '99

- José Antonio Aguirre Franco | *Director General*
- Fco. Javier Leturia Arrazola | *Director Servicios Asistenciales*
- Pablo Arrieta Aizpuru | *Director Recursos Humanos y Servicios Generales*
- M^º Isabel Genua Goena | *Directora de Calidad*
- Ana Orbeagozo Aranburu | *Directora de Enfermería*
- Javier Yanguas Lezaun | *Director I+D*
- Coro Iceta Ibarreta | *Jefe de Contabilidad*

ZIONAMENDURAKO GRAMA FUNCIONAL



9-10

1999an ZENTRO ETA ZERBITZUETAKO DIRECCIONES DE CENTRO Y SERVICIOS 99 ZUZENDARITZAK

- | | | | |
|-------------------------------|--|--|---|
| Dr. Ricardo González Larreina | Jefe Servicio Medicina Hospitalaria | M ^o Jesús Aperribay Alberdi | Dirección de Centro Gerontológico San José |
| Dr. Jesús Coello López | Jefe Servicio Rehabilitación Ambulatoria | Cinzia Sannino Menicucci | Dirección de Centro Gerontológico Alai Etxe |
| Mertxe Heriz Ormaetxea | Dirección de Centro Gerontológico Bermingham | M ^o José Gárate Olazabal | Dirección de Centro Gerontológico Fraisoro |
| Javier Yanguas Lezaun | Dirección de Centro Gerontológico Rezola | | |
| Tomás Olazabal Martínez | Dirección de Centro Gerontológico Txara 1 | | |



SARRERA

INTRODUCCIÓN



El ejercicio de 1998 adquiere especial relevancia en la evolución de MATIA Fundazioa, como consecuencia de una serie de hechos y circunstancias que afectan sustancialmente al presente y futuro de la Fundación.

Por una parte se diseñó y aprobó en el mes de Marzo el Plan a Medio Plazo 1998-2000, plan en el que se definían las políticas y estrategias básicas, así como los objetivos generales y planes de actuación, conducentes a situar a la Fundación en unas condiciones óptimas para encarar el futuro.

Por otra, se produjo una renovación sustancial del equipo directivo, reforzando de manera importante las áreas básicas de la gestión.

Además, a partir de un análisis profundo por el Patronato y los distintos niveles de la organización se llegó a plasmar una definición actualizada de las señas de identidad de nuestra institución a través de la identificación de la misión, visión y valores básicos que la soportan.

Con estos tres pilares básicos, Señas de Identidad, Equipo de Gestión y Plan a Medio Plazo, se inicia en 1998 una atractiva andadura que encierra en sí misma un cambio sustancial para MATIA Fundazioa.

El desarrollo del primer año del trienio ha supuesto ya un avance importante del proyecto, como consecuencia de la puesta en marcha de los planes de actuación enunciados y de otros hechos de especial relevancia.

Podemos significar principalmente:

- La venta de terrenos del Polígono IZA al Gobierno Vasco y la enajenación de otros patrimonios ociosos de la Fundación, unido a la obtención de subvenciones, principalmente del Ayuntamiento de Donostia y Diputación, han supuesto la generación de recursos que posibilitan la financiación de un importante paquete de inversiones extraordinarias, enfocadas a la mejora progresiva de las instalaciones de la Fundación.



- El inicio de las obras de rehabilitación integral de centro Julián Rezola, antiguo asilo Matia.
- La adquisición a la Excm. Diputación de Gipuzkoa del edificio de la antigua Casa Cuna de Fraisoro para su transformación en un moderno Centro Gerontológico, y el inicio de las obras.
- Como consecuencia de una apuesta decidida por la Calidad en su máxima expresión, se inician todas las acciones que conducirán en un plazo razonablemente corto de tiempo a conseguir no sólo el aseguramiento de la calidad en los servicios prestados, sino la optimización en todas las órdenes de la gestión de la organización.
- Se inicia un Plan de Comunicación, tanto interna como externa, el cual incorpora un cambio de imagen corporativo para la Fundación, que pretende dar a conocer y aproximar la realidad y mejora de nuestra institución a la población guipuzcoana.
- Se aborda un amplio Plan de Formación, desarrollando en 1998 un importante programa en este campo.

A final de año y como consecuencia de un reconocimiento a la labor prestada en favor de la población donostiarra a lo largo de más de 110 años de servicio, el Ayuntamiento de Donostia otorga a MATIA Fundazioa la Medalla al Mérito Ciudadano, que le es impuesta en la persona de nuestro Presidente, el 19 de Enero de 1999.

JOSÉ ANTONIO AGUIRRE FRANCO
Director General

1998 urteko ekitaldiak garrantzi berezia izan du Matia Fundazioaren bilakaeran, Fundazioaren oraingo garaia eta etorkizunari zuzenean ikutzen dioten hainbat gertaera eta egoeren ondorioz.

Batetik, martxoan diseinatu eta onartu zen 1998-2000 Epe Ertaineko Plana: oinarrizko politika eta estrategiak definitzen ditu, helburu orokorrak eta jarduteko planak, etorkizunaren erronkari aurre egiteko baldintzarik hobezinetan.

Bestalde, zuzendaritza taldearen berrikuntza nabarmena eman zen, kudeaketako oinarrizko arloak indartuz.

Hori guztiaz gain, Patronatuaren eta antolakuntza maila ezberdinen azterketa sakonetik abiatuta gure erakundearen izaeraren ezaugarrien definizio gaurkotua egitera iritsi gara, egitekoaren eta oinarrizko balioen identifikazioaren bitartez.


Oinarrizko hiru zutabeekin, hau da, Izaeraren ezaugarriak, Kudeaketa taldea, eta Epe Ertaineko Plana, 1998 urtean hasiera eman diogu MATIA Fundazioarentzat aldaketa nabarmenak ekarriko dituen oso ibilbide politari.

Aipaturiko jarduera-plana martxan jarri eta gertatu diren beste ekintza garrantzisu batzuen ondorioz lehenbiziko hiru urtekoaren urtearen garapenak aurrerapausu handia suposatu du proiektuarentzat.

Zera nabarmenduko genuke bereziki:

- Eusko Jaurlaritzari IZA poligonoko lursailen salmentak eta Fundazioaren erabilgarritasunik ez zuten beste ondare batzuen besterentzeak, lorturiko dirulaguntza batzuekin batera, Donostiako Udaletik eta Foru Aldunditik batez ere, aukera eman dute baliabideak sortu, eta aparteko inbertsio batzuk egiteko, instalazioen mailakako hobekuntzari begirako inbertsioak batipat.
- Lehengo "Matia asilo"-aren, gaur egun Julian Rezola zentroaren osoko errehabilitazio-obrei hasiera eman zaie.
- Fraisoro eraikuntzaren erosketa Gipuzkoako Foru Aldundiari Gerontologi Zentro moderno batean bihurtzeko, eta obren hasiera.
- Kalitatearen aldeko apostu finkoa eginez, bideak jarri dira ahalik eta eperik laburrenean ematen diren zerbitzuen kalitatea bermatzeko, eta baita ere erakundearen kudeaketaren maila guztietan optimizazioa.
- Komunikazio planari hasiera eman zaio, bai barnekoari bai kanpokoari, Fundazioari irudi korporatibo berria erantsiz, eta gipuzkoako biztanleriari gure erakundea ezagutzera eman, hobetu eta errealtatetik gerturatzeko helburuarekin lortzeko.
- Prestakuntza plan zabal bati ere hasiera eman zaio, programa garrantzitsua garatuz 1998an.

Urtearen bukaeran, donostiarrei 110 urte luzez eskainitako zerbitzua eta egindako lanaren errekonozimendu gisa, Donostiako Udalak Matia Fundazioari Urrezko Domina eman zion. 1999ko urtarrilaren 19an jarri zioten gure lehendakariari.



ERTAINENKO PLANA ETA PLAN HORREN 1998KO GARAPENA

PLAN A MEDIO PLAZO 1998 - 2000 Y SU DESARROLLO EN 1998

El diseño de este plan recogía las líneas estratégicas de la Fundación, tanto en lo que se refiere al posicionamiento de las actividades, como a las políticas básicas, objetivos generales y planes específicos de actuación. Una síntesis de ellos se presenta a continuación.

3.1 | POLÍTICA GENERAL Y OBJETIVOS

■ POLÍTICA GENERAL

“La Fundación Matía, en lo que entiende que es el interés de la sociedad guipuzcoana a la cual sirve, y en perfecta armonía con las políticas sanitarias y sociales de las Administraciones, asume el compromiso de liderar el desarrollo y prestación de los servicios socio-sanitarios para las Personas Mayores, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, sin ningún afán de monopolizar la actividad”.

Dicho liderazgo supone el constituirse en escuela y foro de formación permanente, tanto para sus propios empleados como para otras entidades y profesionales implicados en la gestión de esos servicios, procurando la máxima difusión de la cultura en esas disciplinas.

Plan horretan Fundazioaren lan-ildo nagusiak azaltzen ziren, hala jardueri, nola oinarrizko politika, helburu orokor eta berriazko jardute-planei dagokienez.

Jarraian azaltzen dugu horien guztien laburpena.

3.1 POLITIKA OROKORRA ETA HELBURUAK

■ POLITIKA OROKORRA

“Matia Fundazioak bere egiten du Gipuzkoako Lurralde Historikoan Pertsona Nagusientzako gizarte- eta osasun-zerbitzuak, jarduera monopolizatzeako asmorik gabe, garatu eta eskaintzeko gidaritzakonpromisoa, zerbitzatzen duen gipuzkoar gizartearen interesaren mesedetan, eta Administrazioen osasun- eta gizarte-politikekin bat”.

Gidaritza horrek eskatzen du bai bertako langileen, bai mota horretako zerbitzuak kudeatzeaz arduratzen diren beste entitate eta profesionalen prestakuntza etengabe bultzatzea, diziplina horietan kultura-hedapen ahalik eta zabalena lortzeko.

■ OBJETIVOS GENERALES.

Sobre la base de las políticas enunciadas, los Objetivos Generales de la Fundación se fijan de la siguiente manera:

- **Objetivo 1.** Seleccionar y posicionar adecuadamente actividades y servicios en la Sociedad, tanto a través del sector público como del privado.
- **Objetivo 2.** Conseguir la máxima calidad posible en los servicios, medida ésta en términos de satisfacción del cliente, usuario y sus familiares, y del conjunto de trabajadores de la Fundación.
- **Objetivo 3.** Mejorar sustancialmente las condiciones hosteleras de los centros de la Fundación, acometiendo para ello las inversiones necesarias para su urgente adecuación.
- **Objetivo 4.** Consolidar la imagen de la Fundación en el exterior y dotarla de una sólida base social.
- **Objetivo 5.** Constituirse en escuela permanente de formación, tanto para sus empleados como para la sociedad guipuzcoana, llegando a identificarse como el referente obligado del sector.
- **Objetivo 6.** Sostener los Resultados económicos de las actividades asistenciales, situando la generación de recursos o cash-flow del conjunto de las mismas en el orden del 5 al 7 % de la cifra de facturación.
- **Objetivo 7.** Consolidar la estructura financiera y patrimonial de la Fundación y generar los recursos extraordinarios que permitan la financiación de las inversiones extraordinarias derivadas del objetivo 3.

Para llegar a alcanzar estos objetivos generales, se identificaron las formas de conseguirlo, enunciando consiguientemente los planes de acción específicos que indicamos a continuación y de los que se ha conseguido un apreciable avance en 1998.



■ HELBURU OROKORRAK

Fundazioaren Helburu Orokorrak, aipatu politikak oinarritzat hartuz, honakoak dira:

- **1 Helburua.** *Gizarteari begira, sektore publikoaren zein pribatuaren bitartez, jarduerak eta zerbitzuak behar bezala hautatu eta kokatzea.*
- **2 Helburua.** *Zerbitzuak, kalitate aldetik, ezin hobek izatea. Hori neurtzeko kontuan hartuko da bezeroaren, erabiltzaileen eta horien familiakoen poztasun-maila, bai eta Fundazioko langileena ere.*
- **3 Helburua.** *Fundazioaren zentroetan hostalaritza-azpiegiturak gutziz hobetzea eta, beraz, alde horretatik beharrezko jotzen diren diru-inbertsioak egitea.*
- **4 Helburua.** *Fundazioaren imajina kanpora begira sendotzea eta Fundazioa gizatalde egonkorrez osatzea.*
- **5 Helburua.** *Prestakuntza-eskola iraunkorra eratu, bai enplegatuen, bai gizarte gipuzkoarraren zerbitzura, eta sektorearen nahitaezko erreferente bihurtu.*
- **6 Helburua.** *Asistentzi aktibitateen emaitza ekonomikoei eustea eta aktibitate multzoaren baliabide-eraketa edo "cash-flow" a fakturazio kopuruaren %5etik 7ra bitartekoa izatea.*
- **7 Helburua.** *Fundazioaren finantza- eta ondare-egitura sendotzea eta 3. helburuari begira behar diren aparteko inbertsioen finantziarioa bideratzeko berariazko baliabideak sortzea.*

Helburu orokorrak lortzeko ekintza-planak zehaztu ziren. Berariazko ekintza-plan horiek, jarraian azalduko ditugunak, aurrerapauso handia ekarri dute 1998an.

3.2 PLAN DE CALIDAD

Constituye el pilar fundamental de la estrategia de futuro de la Fundación, tanto por tener como objetivo el conseguir el máximo grado de cumplimentación de su objeto social, como por constituirse en el principal mecanismo de defensa, ante una futura competencia en las actividades existentes, basada fundamentalmente en el precio.

El sistema de gestión a desarrollar responde a un modelo orientado hacia la CALIDAD TOTAL.

La Fundación, a lo largo de 1998 y hasta el momento actual, viene desarrollando el Manual de Calidad y Procedimientos correspondientes a todos sus servicios y centros, de acuerdo con la normativa internacional UNE-EN-ISO 9000 para el aseguramiento de la calidad.

Dicho manual y procedimientos están en el momento presente en fase de implantación total, previéndose para antes de fin de 1999 la obtención de la Certificación Oficial de Calidad para todos los servicios y centros, de acuerdo con la citada norma.

Paralelamente, se está desarrollando, de acuerdo con el modelo EFQM, el Sistema de Gestión por Procesos orientado a la Calidad Total. Este modelo que tiene como norte permanente la satisfacción del cliente y pretende conseguir la excelencia en la gestión empresarial, está siendo desarrollado con el apoyo y asesoramiento de la Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad desde el mes de Abril del pasado año.

3.2 KALITATE PLANA

Fundazioaren etorkizuneko estrategiaren oinarritzko zutabea da kalitate-plana, helburu soziala ahalik eta mailarik zabalenean lortzeko asmoa duelako eta egungo jardueretan prezioen aldetik gerta daitekeen lehiri erantzuteko defentsa-mekanismo nagusia delako.

Garatu beharreko kudeaketa-sistemak OSOTASUNEKO KALITATEA lortu nahi du.

Fundazioak 1998an zehar eta gaur egunera arte, zerbitzu eta zentro guztiei begira, Kalitate eta Jardunbide Manualak prestatzen aritu da, kalitatea ziurtatzen duen UNE-EN-ISO 9000 nazioarteko araudia kontuan hartuz.

Egun, bi manual horien azalpenak praktikan jartzen ari gara eta 1999a amaitu baino lehen zerbitzu eta zentro guztietan Kalitate Sistemaren Egiaztagiri Ofiziala lortzea aurreikusi dugu, aipatu araudiarekin bat.

Aldi berean, Osotasuneko Kalitatea helburu duen Prozesu bidezko Kudeaketa garatzen ari gara, EFQM ereduari jarraituz. Eredu horren bidez etengabe bilatzen da bezeroa pozik uztea eta enpresa-kudeaketa ahalik eta egokiena lortzea. Lehengo urteko apirila ezkerotik Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioaren laguntza eta aholkularitza izan dugu eredu hori garatzeko.

Matia Fundazioaren Kalitate Planak prozesuen partehartze-kudeaketan oinarritutako eredu hori ezartzea eta Kalitatea Ziurtatzeko Sistemari egokitzea aurreikusten du, Fundazioaren Osotasuneko Kalitate Sistema osatuko dutelarik.

El Plan de Calidad de Matia Fundazioa contempla la implantación del citado modelo basado en la gestión participativa de los procesos, incorporándolo al Sistema de Aseguramiento de la Calidad, constituyendo ambos el Sistema de Calidad integral de la Fundación.

3.3 PLAN DE INFRAESTRUCTURAS

Este plan recoge las actuaciones a desarrollar para poner al día las condiciones hosteleras de los edificios e instalaciones de la Fundación, cubriendo así su carencia más acusada.

El plan se centra en los tres edificios principales, Bermingham, Rezola y el futuro centro de Fraisoro.

Dada la imprescindible necesidad de rehabilitación y adecuación del Centro Rezola (antiguo Asilo Matía) y la problemática que ello suponía, tanto por el número de plazas (ya que se reduciría de 148 a 90 plazas) como por tener que realizarlo con todos los servicios funcionando, se convino en la Excm. Diputación de Gipuzkoa una buena solución al problema.

Esta solución consistió en la adquisición en noviembre de 1998 del edificio de la Casa Cuna de Fraisoro para reconvertirlo en un moderno Centro Gerontológico que pudiese dar solución no sólo al número de plazas comentado, sino a la logística de las obras, permitiendo el movimiento de usuarios.

AZPIEGITURETAKO PLANA | 3.3

Plan honetan azaltzen dira Fundazioaren eraikin eta instalazioetako hostalaritza-azpiegiturak egokitzeko egin beharreko lanak. Era horretan gabezi nabarmenei egingo zaie aurre.

Planak hiru eraikin nagusiak hartzen ditu ardatzat: Bermingham, Rezola eta laster zabalduko den Fraisoroko Zentroak.

Kontuan izan behar dugu Rezola Zentroa birgaitu eta egokitzea behar-beharrezkoa zela eta horrek guztiak zailtasun handiak zituela, bai plaza-kopuruaren aldetik (148tik 90era murriztu behar ziren), bai zerbitzua burutzearen aldetik, ez baitzegoen eteterik. Arazo horiei aurre egiteko irtenbide egokia hartu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Horrenbestez, 1998ko azaroan Fraisoro Etxea erosi genuen Gerontologi Zentroa bihurtu eta aipatu plaza-kopuruaren arazoari ez ezik, lanen logistikari eta bezeroen joan-etorriei ere irtenbide emateko.



El tratamiento del Plan de Infraestructuras es el siguiente:

A CENTRO JULIÁN REZOLA

El antiguo edificio albergaba hasta 1998 los servicios de Residencia asistida para 148 plazas residentes y Centro de Día para 50 plazas.

El proyecto de reconversión del edificio modifica totalmente su arquitectura interior y exterior, pasando a disponer 90 plazas residenciales en habitaciones dobles e individuales con baño, trasladando el Centro de Día al Centro Ricardo Bermingham, y dotando al edificio y su entorno de los servicios y espacios adecuados para un máximo confort.

La ejecución se inició en Mayo de 1998, previéndose su finalización total en Noviembre de 1999.

B CENTRO DE FRAISORO

Este edificio que conservará su arquitectura exterior (fachadas y cubierta), precisa de una total reconversión de su distribución interna, previéndose habilitar 70 plazas residenciales en habitaciones dobles e individuales con baño, y dotándole de todos los servicios y áreas de expansión para conseguir un excelente confort y condiciones para el usuario. Las obras de rehabilitación del Centro se iniciaron en Octubre de 1998, previéndose su finalización en Setiembre de 1999, incluyendo además un Centro de Día de 15 plazas para usuarios de la comarca.

Azpiegitura Plana honakoa da:

A JULIAN REZOLA ZENTROA

Lehengo eraikinak 1998ra arte 148 egoiliar-plaza eskaintzen zituen Zaintzadun Egoitzan eta Eguneko Zentroan, aldiz, 50 plaza.

Eraikinaren birmoldaketa-egitasmoak erabat aldatuko du barneko eta kanpoko arkitektura, eta aurrerantzean 90 egoiliar-plaza izango ditu, biko gela eta banako gelak bainugelarekin. Eraikinak eta inguruak eroso egoteko zerbitzu eta egonleku egokiak izango ditu. Eguneko Zentroa, bestalde, Ricardo Bermingham Zentrora eramango da. Birmoldaketa-lanei 1998ko maiatzean ekin zitzaizen eta 1999ko azarorako amaiteza aurreikusi da.

B FRAISORO ZENTROA

Eraikinaren kanpoko arkitektura (fatxadak eta estalkia) bere horretan utziko da; barrutik, ordea, barne banaketaren erabateko birmoldaketa egingo da. Aurreikuspenen arabera, biko gela eta banako gelak bainugelarekin 70 egoiliar-plaza prestatuko dira eta erabiltzailea guztiz eroso egoteko zerbitzu eta inguruak egokituko. Zentroa birmoldatzeko lanak 1998ko urrian hasi ziren eta 1999ko irailean amaiteza aurreikusi da. Bestalde, 15 plazako Eguneko Zentro bat moldatuko da eskualdeko erabiltzaileentzat.

C CENTRO BIRMINGHAM

El desarrollo de trabajos sobre el edificio principal de la Fundación se plantea a lo largo de los tres años (1998, 1999 y 2000) habiéndose iniciado alguna de estas actuaciones, pero estando prevista la realización de las inversiones principales a finales de 1999 y en el año 2000, siempre que los recursos financieros extraordinarios generados permitan abordar esos proyectos.

Las actuaciones principales en el edificio Birmingham se contemplaban de la siguiente manera:

- Habilitación de un Centro de Día para 50 plazas en los espacios de la antigua Farmacia (planta-2). (Abril 1998)
- Mejora de las instalaciones del Servicio de Rehabilitación (planta- 1), tanto en los gimnasios como en la piscina. (1998-1999)
- Modificación de distribuciones y circulaciones en Planta Baja, mejorando su arquitectura interior, accesos, circulación de ambulancias, y dotación de servicios adicionales, como salas de médicos, parking exterior, etc.(1999)
- Aprovechamiento de las amplias terrazas exteriores en base a su cubrición parcial y acondicionamiento, sirviendo de excelentes superficies de expansión tanto al Area Residencial como a la Hospitalaria.(1999)

C BIRMINGHAM ZENTROA

Fundazioaren eraikin nagusiko lanak hiru urtetan egingo dira (1998, 1999 eta 2000). Ekin zaie, dagoeneko, hainbat lan, baina inbertsio nagusiak 1999ko amaieran eta 2000. urtean egitea aurreikusi da; beti ere, sortzen diren aparteko finantza baliabideak egitasmoei ekitea ahalmentzen badute.

Birmingham eraikinean egingo diren lan nagusiak hauek dira:

- *Farmazia zaharrear (2. solairua) 50 plazetako Eguneko Zentroa prestatzea (1998 apirilean).*
- *Errehabilitazio Zerbitzuaren instalazioak (1. solairua), gimnasioa eta igerilekua alegia, hobetzea (1998-1999).*
- *Behoko solairuaren banaketa- eta igaro-guneak birmoldatzea, hau da: barneko arkitektura, sarrera-irteerak, anbulantzi bideak eta zerbitzu osagarriak (sendagile-aretoak, kanpoko aparkalekua,...) hobetzea (1999).*
- *Kanpoko terraza zabalak erabiltzea eta, beraz, egoitza zein ospitale eremuaren atsedeen leku ezin hobea bihurtzea. Asmo horretarako, terraza osoa egokituko da eta zati bati estalkia jarriko zaio.*

Cierre de la finca de Fundación Matía, englobando los edificios de Bermingham y Rezola, de forma que los espacios exteriores queden de tránsito y uso exclusivo de los Servicios de la Fundación y de sus residentes y familiares. (1999)

Renovación de las habitaciones y espacios comunes en las cuatro plantas superiores (dos hospitalarias y dos residenciales) (2000).

Trabajos de rehabilitación de fachadas; centrados en la recuperación o reposición de la carpintería metálica y en la impermeabilización y pintura del caravista. (2000)

D CENTRO SAN JOSÉ

Siendo el edificio propiedad de la Diputación Foral, y dadas las necesarias mejoras a introducir, se inicia un plan conjunto con Diputación, afectando principalmente a la creación de nuevos espacios que permitan un desahogo y mejora de las actuales condiciones de habitabilidad.

Matía Fundazioa, Bermingham eta Rezola eraikinak hain zuzen, kanpoko aldetik hesitzea. Era horretan, eraikinen gune horiek Fundazioaren Zerbitzuen eta egoiliar zein familiakoen erabilerarako utziko dira (1999).

Goiko lau solairuen (bi solairuk ospitale erabilera eta beste bik egoitza erabilera dute) gelak eta baterako guneak birmoldatu egingo dira (2000).

Fatxadak birgaitzeko lanak; batez ere, arotzia metalikoa konpondu edo berritzea eta karabista iragazkaiztu eta pintatzea (2000).

D SAN JOSE ZENTROA

Eraikina Foru Aldundiarena da eta, hortaz, beharrezko hobekuntza-lanei ekiteko plan bat zehaztu da Foru Aldundiarekin elkarlanean. Atsedenerako gune berriak sortzea eta egungo bizigarritasun baldintzak hobetzea izango dira lan nagusiak .

3.4 IMAGEN Y COMUNICACIÓN

La imagen de Matia Fundazioa en el exterior, tal como se detecta en el estudio realizado al efecto, es percibida de forma diversa.

Aquellos que están próximos a ella o han tenido familiares como usuarios, aprecian la buena calidad asistencial y humana y se lamentan de la precariedad de las instalaciones propias como carencia principal.

Sin embargo la imagen de la población en general es más difusa y sigue manteniendo ingredientes de asilo y de entidad conflictiva, desconociéndose en gran medida su situación actual.

Por otra parte, el desarrollo de los Planes Específicos enunciados debe situar a la Fundación en una posición claramente mejorada en un inmediato futuro.

Tanto para corregir una imagen deformada o arcaica, como para transmitir la positiva progresión en muchos aspectos, y contando con la participación de empresa especializada, se está desarrollando el Plan de Imagen y Comunicación más adecuado para la Fundación, el cual incorpora un cambio de imagen corporativo y pretende aproximar la realidad y mejora de nuestra institución a la población guipuzcoana.



IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA

3.4

Jendeak MATIA Fundazioaz iritzi desberdinak ditu, helburu horrekin egindako azterketan ikus daitekeen moduan.

Fundazioarekin gertuko harremana dutenek edo erabiltzaile izandako familiakoren bat dutenek asistentzi eta giza kalitate ona estimatzen dute eta gabezia nagusizat instalazioen egoera eskasa jotzen dute.

Dena dela, herritarren iritzia, oro har, ez da oso zehatza, eta oraindik ere entitateari aterpe- eta istilutsu-izaera eransten diote, ez baitute Fundazioaren egungo egoeraren berri.

Bestalde, azaldu ditugun Berariazko Planen garapenari esker, Fundazioa egoera nabarmen hobea batean izango dugu berehalako etorkizunean.

Jendeak Fundazioaz izan dezakeen irudi oker edo aspaldikoa zuzentzeko eta arlo askotan aurrera egin dela azaltzeko, Fundazioarekin bat datorren Irudi eta Komunikazio Plan egokiago bat garatzen ari gara enpresa berezitu baten laguntzaz. Plan horren bitartez, korporazioaren irudia aldatuko da eta, horrez gainera, Gipuzkoako herritarrei gure erakundearen hobetze-ahalegina eta errealitatea emango zaie ezagutzera.

3.5 OTROS PLANES

El Plan de Calidad, el de Infraestructuras y el de Imagen y Comunicación constituyen los tres pilares básicos en los que se asienta el cambio de MATIA en el trienio. Como complemento de estos planes básicos, el Plan a Medio Plazo considera también otras importantes actuaciones en otros ámbitos, pudiéndose enunciar las siguientes:

3.5.1 PLAN DE FORMACIÓN

De acuerdo con el Objetivo nº 5 en el PLAN A MEDIO PLAZO de “**constituirse en escuela permanente de formación**” se hace obligado abordar la formación permanente de toda la plantilla de la Fundación.

Para ello durante 1998 se ha diseñado un PLAN DE FORMACIÓN INTERNO de proyección trianual, en el que se establecieron tres fases: el análisis de las necesidades de formación, la elaboración del plan de cursos y preparación de equipos mixtos, y la evaluación de las acciones formativas.

Resultado del análisis de las necesidades, se perfilan las áreas formativas siguientes:

GESTIÓN DE LA CALIDAD Y LOGÍSTICA

GESTIÓN ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA

GESTIÓN DE RECURSOS HUMANOS

GESTIÓN DE LA COMUNICACIÓN

GESTIÓN ASISTENCIAL

GESTIÓN INFORMÁTICA

3.5 BESTE PLAN BATZUK

Hurrengo hirurtekoan MATIAk egingo duen aldaketak hiru plan nagusi ditu oinarri: Kalitate Plana, Azpiegitura Plana eta Irudi eta Komunikazio Plana. Epe Ertaineko Planak, oinarritzko plan horien osagarri gisa, beste arlo batzuetarako beste hainbat jarduketak garrantzitsu hartu ditu kontuan, besteak beste:

3.5.1 PRESTAKUNTZA-PLANA

EPE ERTAINEKO PLANaren 5. helburuaren arabera, “prestakuntza-eskola iraunkorra eratu” alegia, beharrezkotzat jotzen da langile guztien prestakuntza iraunkorrari ekitea.

Asmo horri erantzuteko, hirurteko izaera duen BARNEKO PRESTAKUNTZA-PLANA egin da 1998an. Plan horretan hiru epe zehazu dira: prestakuntza-beharrak aztertzea; ikastaro-plana egitea eta talde mistoak prestatzea; eta prestakuntza-jarduketak ebaluatzea.

Beharren azterketa egin ondoren, ikusi da prestakuntza arlo hauek landu behar direla:

KALITATE ETA LOGISTIKAREN KUDEAKETA

DIRU ETA AURREKONTUEN KUDEAKETA

GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETA

ASISIENTZIAREN KUDEAKETA

INFORMATIKAREN KUDEAKETA

Habiéndose aprobado el plan de Formación HOBETUZ en su 3ª convocatoria, se ha puesto en marcha el mismo en 1998, con solución de continuidad para los cursos 1999 y 2000, contemplándose para 1999 el desarrollo de un importante número de cursos.

3.5.2. PLAN DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

La Ley 31/1995 de 8 de Noviembre marcó un punto de inflexión en el tratamiento de la Prevención de Riesgos Laborales, siendo una de las materias pendientes de aplicación en Matía. En esa línea durante 1998 se ha diseñado un proyecto de Prevención de Riesgos Laborales. En dicho proyecto, se establece un verdadero Sistema de Gestión Integrado de la Prevención de Riesgos laborales.

Para ello, se contrató para la implantación del Sistema de Gestión, los servicios de "PREVENCILAN S.L." empresa homologada oficialmente por OSALAN.

Primeramente se ha realizado un diagnóstico de la Seguridad y Salud en todo el ámbito de la Fundación, para posteriormente y durante el ejercicio 1999 realizar la Evaluación de todos los puestos de trabajo, así como las medidas preventivas consiguientes, contando para ello necesariamente con la participación clave del Comité de Seguridad y Salud de la Fundación creado al efecto.

HOBETUZ prestakuntza-planaren 3. deialdia onetsi eta, beraz, 1998an abian jarri da. 1999 eta 2000 ikasturteetan segida emango diegu ikastaroei. 1999an ikastaro kopuru handia emango da.

3.5.2. LAN ARRISKUEI AURRE HARTZEKO PLANA

Azaroaren 8ko 31/1995 Legeak aldaketa ekarri zuen lan arriskuei aurre hartzeko zereginetan. Matiak arlo hau landu gabe dauka oraindik. Zentzu horretan, Lan arriskuei aurre hartzeko egitasmo bat egin da 1998an. Egitasmo horretan orain arteko prebentzio neurriez gainera (gripearen aurkako txertoa, eta langileentzako osasun azterketekin berriz hastea), Lan Arriskuei Aurre Hartzeko Kudeaketa Sistema Integratua zehazten da.

Kudeaketa Sistema ezartzeko, OSALANek ofizialki homologatutako "PREVENCILAN S.L." enpresaren zerbitzuak kontratatu genituen. Lehenik, Fundazioaren eremu guztietan Segurtasun eta Osasunari buruzko azterketa egin da. Lan hori amaitu ondoren, 1999ko ekitaldian, lanpostu guztien arrisku-ebaluazioa egin eta aurre hartze neurriak ezarriko dira. Lan hori burutzeko Fundazioaren Segurtasun eta Osasun Batzordearen partehartze ezinbestekoa izango dugu. Batzorde hori gai honetan jarduteko eratu da.

3.5.3. PLAN DE EUSKALDUNIZACIÓN

